

LEZAMATIK

■ Ramon Basaldua

Ilusioari eutsi beharra

Ezin da esan Athleticen bizi duen egoera txarra edo larria denik. Liga txapelketa amaitzeko hamar jardunaldi gertatzen direnean Txetxu Rojoren taldeak sei puntura du sailkapeneko seigarren postua, UEFAn jokatzeko eskubidea ematen duena hain zuzen. Beherantz begiratuta, Athleticen bederatzi puntura ditu bigarren mailarako postuak.

Gauzak horrela, arestian esan bezala

talde zuri-gorriaren egoera ez da larria, ez. Hala ere, Athleticen egoera ez da batere eroso. Izan ere, Liga amaitzeko hamar jardunaldiren faltan, Athleticen ez daki oso ondo Europar sartzeko aukerarik duen ala ez. Arazo nagusia ez da Vila-realekiko dauden sei puntuak, ez. Arazoa da taldearen joko makala eta jokalarien ezina zelaian.

Egutegiari erreparatuta, Athleticen



LUIS TEJIDO / EFE

Rios, igandean, Zigandari begira.

badu oraindik Europar sartzeko aukerarik. Alde batetik, UEFAn sartzeko borrokan aurkari dituen Celta, Espanyol, Rayo, eta Alavesen aurka jokatu du hurrengo lau jardunaldietan. Gainera, aipaturiko lau talde hauek eta Vila-realek Real Madril, Deportivo, Bartzelona eta Mallorcaren aurka jokatu behar dute Liga amaitu aurretik. Beraz, zuri-gorrien egutegia aurkariena baina erosoagoa da. Hori bai, Osasunaren aurka bezala jokatzeko badute bost axola zer egiten duten aurkariak. Ilusioari eustea da orain zuri-gorrien erronka nagusia.

MOTZEAN

REALA

Baliteke Toshackek hamaikakoan aldaketa bakarra egitea

John Toshackek atzo ekin zion Oviedoren aurkako neurketa prestatzeari eta itxura batean, Mallorcaren aurka hasieratik zelairatu zuen hamaikakoarekin alde-ratuta aldaketa bakarra egin dezake: Aranzabal, Lopez Rekarteren ordeztu.

LESIOAK

Osasuna. Sabinok, Ociok eta Mateok osatze bidean jarraitzen dute, baina ezingo dute jokatu igandean. Alfredok ezingo du denboraldi honetan gehiago jokatu.

Alaves. Jokalari guztiak normaltasunez entrenatu dira, baina Moreno, Tellez eta Tomic oraindik ez daude guztiz sendatuta.

Athletic. Larrazabal Lezaman izan zen atzo baina ez zen berdegunera atera. Urzaiz bide onetik doa.

Reala. Aranburuk pixkanaka abiatuta korrika saio txikiak egin zituen atzo. Jauregik min hartuta jarraitzen du. Demetradze, Luiz Alberto eta Julio Cesar osatu dira.

ENTRENAMENDUAK

Alaves. Goizeko 11:00etan egingo dute partiduaren aurreko azken prestaketa saioa.

Athletic. Zuri-gorriak Lezaman 10:30ean egingo dute entrenamendua.

Reala. Talde txuri-urdina goizeko 10:30ean entrenatuko da, Zubietan.

Osasuna. Gorritxoaren taldea 10:30etik aurrera entrenatuko da gaur Taxoaren.

PARTIDUAK

Alaves-Kaiserslautern. UEFAn finalerdietako joaneko partidua jokatu du gaur Mendizorrotza futbol zelaian, 21:15ean (TVE2).

OSASUNA. Federazioak Alfredori fitxa kentzea onartuz gero Gerardo asteen iritsi daiteke

Alfredok matrailezurra hautsi du, eta Osasuna Gerardo fitxatzekotan da

Baimenik gabe paddlean ari zirela Arponek nahi gabe jo zuen palarekin madrildarra

Asier Legarda-ereño | IRUÑEA

Igandean San Mamesen lortutako garaipenak Iruñera ekarritako baikortasuna eta lasaitasuna erabat zapuztu ziren atzo Alfredok emandako berri txarrekin. Erdilari madrildarrak ezingo du jokatu denboraldia amaitu bitartean gertatzen diren partiduetan, asteartean, atsedeen eguna aprobetxatuz Arpon eta Palacios taldekideekin batera paddlean jokatzeko erabaki, eta ari zirela, matrailezurra hautsi baitzuen. Berri txarrena hori da, izan, baina Alfredok denboraldiko unerik erabakigarrenean berriro ere taldearen barne diziiplina hauttea ez da hobe.

Alex Fernandezekin batera Mallorcako liskarrean ere protagonista izan ostean, Alfredok hanka sartu du berriro. Osasunako barne diziplinak «entrenamenduez kanpoko edozein ariketa fisiko egitea» debekatzen die Osasunako jokalariei, ez badute horretarako baimenik. Paddlean berez, ez da arriskuko kirola baina Alfredok, Palaciosen eta Arponek bezalaxe, bazekien lesioak eragozteko debekatuta zutela entrenamenduetatik at kirolean aritzea.

Palaciosi, Arponi eta Alfredori isuna jarriko die Osasunak

Horregatik guztiagatik, eta Lotinaren oraintsu antzeko egoerak galarazteko jokalariei eskaera zehatza egin zela, «klubak paddle partidu horretan parte hartu zuten hiru jokalariei isuna ezarriko» diela adierazi zuen atzo Angel Bizkaik, Osasunako gerenteak.

Gainera, Angel Bizkaik adierazi zuenez «Alfredoren kasua ongi aztertu beharko da, ez

PERTSONAIK

GERARDO GARCIA LEON

[Valentziako jokalaria]



Sevillarra, 26 urte. Erdilaria. 1,74 m luze da eta 72 kilo pisatzen ditu. Osasunarekin jubeniletan aritutakoa. Orduz geroztik Real Madril B, Leganes, Lleida, Badajoz, Vila-real eta Valentzian aritu da. Badajozen Lotina izan zuen entrenatzaile.



CRISTINA BERRAIN

Miranda eta Alfredo, atzo, entrenamenduaren ostean hizketan.

baita klubaren barne diziiplina hausten duen lehen aldia». Isuna eta gainerakoan hartu daitezkeen neurriak ekaina arte ez zaizkie ezarriko, Osasunako gerentearen esanetan.

«Beste jokalaria bat ekarriko dugu bere tokia betetzeko»

Miguel Angel Lotinaren ez zuen auzi honen inguruan hitzik egin nahi izan, baina Angel Martin Gonzalez bere borondatez azaldu zen prentsaurrekora. Osasunako bigarren entrenatzaileak garbi azaldu zituen klubaren asmoak: «Denboraldi amaiera arte jokatu ezingo duenez Alfredori fitxa kenduko diogu federazioan eta beste jokalaria bat ekarriko dugu haren tokia betetzeko».

Martin Gonzalezen esanetan, «hiru jokalariren atzetik gabiltza; Valentziako Gerardo-ekin negoziazioak nahiko aurreratuta daude, eta litekeena da igandean jokatzeko moduan izatea Iruñean».

Jokalariei izandako negoziatioetan atzerapausorik ez bada, gerta litekeen arazo bakarra da Espainiako Futbol Federazioak ez onartzea Alfredori fitxa ezabatzea. Berez, jokalaria bat «gutxienez bost hilabeterako» lesionatzen bada, Federazioak onartzen du beste jokalariren batekin ordezkatzeko, baina Alfredoren kasua ez da hori (erabat osatzeko bizpahiru hilabete baino ez baititu behar). Halere, aurtan Bartzelonako Abeldorekin ere antzeko zerbait gertatu zen, eta Osasunako zuzendariak baikor agertu ziren.

Gerardo Lotinaren aginduetara egon zen Badajozen, eta zelaian erdian aritzeaz gain eskuin hegalean ere aritu daiteke.